

Irratiekiko zaletasunaren erakusle

Javier Soler bildumagile donostiarraren 'Sonidos en el recuerdo / Soinuak gogoan' erakusketa bisita dezakete herritarrek / 2

Komunikazioa sustatzeko asmoz

Borobilean Elkartea eratu du herritar talde batek, Euskal Herriko nahiz nazioarteko gaiak aurrez aurre joratzeko / 7

Herritarrak euskararen uretan sar daitezten, ekimen ugari antolatu ditu **Ttakun KEK** / 3

Maitasun ereduaren gainera hausnarketa eginda, 'Barraskiloez baino bat gehiago' idatzi du Ane Labakak / 4

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek TXINTXARRI-rekin partekatu dute haien urtebetetze festa / 6

Buruntzaldea IKTko igerilariek Neguko Ligari hasiera emango diote Ordizian / 10

Boluntarioak omenduko ditu ibilbide aldaketa duen 26. Lasarte-Oria Bai! krosak / 11

Ostadar Boleibol sailak zazpi talde aterako ditu 2023-2024 denboraldian kantxara lehiaztera / 12

AZKEN EGUNAK

Progresiboen hilabetea

2x189€

mó betaurreko progresibo



batzuk eguzkitakoak izan daitezke



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

MULTIÓPTICAS

Tel.: 943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   

Erakusleiho bilakatu du urteetako zaletasuna

Antzinako irratiak erakusketa zabaldu du Javier Soler donostiarrak. Gaztetatik joan da horiek guztiak bildu eta konpontzen, eta mimo handiz ekarri ditu, horietatik guztietatik 60 pieza. Etzira arte, hilak 22, dute herritarrek horiek ikustera joateko aukera

Txintxarri

Javier Soler bildumagile donostiarren *Sonidos en el recuerdo / Soinuak gogoan* antzinako irratiak erakusketa bisita dezakete herritarrek, egunotan, Antonio Mercero aretoan. Igandera arte (hilak 22) izango dute horretarako aukera. Astegunez, 18:00etatik 20:30era izango da ikustera joateko ordutegia, eta, jaiegunetan, berriz, 11:00etatik 13:00etara.

Gaztetatik, gutxi gorabehera 17 urte zituenetik dator kio irratiakiko zaletasuna Solerri. Gogoan du gurasoen etxean bizi zenean hasi zela horiek pilatzen, hortaz, pentsa, gaurdaino horietako zenbat biltzea lortu duen.

Multzo horretatik aukeratuak 60 irratiarekin osatu du Antonio Mercero erakusketa, eta horien guztien artean, garai ezberdinetako altxor ederrak ikus ditzakete bisitariak. Badira, besteak beste, duela 90 urteko irratiak, 1930. urtekoak. Horiek dira Solerren kuttunenak, "antzinakoak". Bertarazten direnek, ikusiko dituzte baita ere Bigarren Mundu Gerrako gerra gurdi bateko



Javier Soler, erakusgai jarri dituen antzinako irratiak inguruan dituela. TXINTXARRI

irrati bat, edota 1933. urteko Alemania naziko aparatu bat ere bai; azken hori semeak herrialde horretatik ekarria. Eta antzinako irrati bat barrutik nolako den ere ikusi ahal izango dute bertarazten direnek, izan ere, erakusgai jarritakoen artean bada bat metakrilatozko estalki garden bat duena. Biltzen dituen irratiak konpondu ere egiten dituela kontatu dio TXINTXARRI-ri, aldizkariak erakusketara egindako bisitan.

Erakusketak, harrera "ona"

Iragan ostegunean, hilak 12, zabaldu zituen atea erakusketak, eta ordutik hona, bisitariak gerturatu direla kontatu du Solerrek; uste du interesa piztu duela: "Egun hauetako batean 40 bat lagun bildu ginen aretoan, jendeak interesa zuela erakutsi zuen, galderak egin zizkidaten".

Lasarte-Oriako erakusketa amaituta, Oñatira joango dela kontatu dio aldizkariari.



Irudi hauetan ikus daitezke Solerrek erakusgai jarritako piezetako batzuk. TXINTXARRI



Saridunak, merkatarien elkarteko kideekin eta udal ordezkariarekin. ISAAC FARRE

Ferrak bilatu eta horiek erakutsi dituztelako jaso dute saria

250 euroko erosketa bonuen zortzi sari banatu ditu Aterpeak. Azaroaren 4ra arte dute irabazleek horiek erabiltzeko aukera

Txintxarri

Ferraren bila egitasmoko sariak banatu ditu Aterpeak; Halcon Bidaia-en atarian egin dute sari banaketa. Merkatarien elkarteko lehendakari Mabel Pedreirak nabarmendu du "arrakasta handia" izan duela ekimenak. Aurreko edizioetan ez bezala, aurten, irabazle guz-

tieki sari berdina jaso dute: 10 euroko hogeita bost erosketa txartel. Hauek izan dira sari-dunak: Maddi N. Zaldúa (bere lankide Iñigo Gonzalez Sarobek jaso du), Ruth Lopez Colomo, Ainara del Rey Gomez, Cristina Rodriguez Rodriguez, Mikel Naya Carrasco, Esther Roscales Martin, Olaia Redondo Imaz

eta Sonia Gonzalez Conde. Pozik jaso dituzte bonuak, Aterpeko zein udaleko ordezkarien eskuetatik. Bertan izan dira, Agustin Valdivia alkatea, eta Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez. Azaroaren 4a baino lehen erabili beharko dituztela ohartarazi dute merkatarien elkarteko arduradunek.

Aterpeko lehendakariak gogorarazi du dagoeneko martxan dutela ekimen berri bat: Gozatu kanpaina. Lasarte-Oriatarrak bertan parte hartuz, eta tokiko establezimenduetan kontsumitzera deitu ditu. Azken eguna, hilak 28.

Murgil zaitez euskararen uretan Ttakunen eskutik!

Makina bat egitasmo aurrera eramaten ditu euskara elkarte horrek ikasturtero, adin tarte guztietako lasarteoriatarrentzako, Lasarte-Oriako Udalaren eta herriko eragileen laguntzarekin. Programa, ikastaro eta talde gehienak martxan daude honezkeroko

Txintxarri

Lasarte-Orian euskararen eta euskal kulturaren normalizazioaren alde lan egiten du Ttakun Kultur Elkarteak 1991ko azarotik. Xede hori ardatz hartuta, ikasturtero egitasmo eskaintza zabala prestatzen du, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzarekin. Hala, ekimen batzuk erakunde horren Euskara Zerbitzuak, Jaiak departamentuak eta Kultura sailak diruz laguntzen ditu. Horrez gain, eragile horretako kideentzat "ezinbestekoa" da bazkide eta euskaltzale ororen laguntza, beraz, horretarako deia egin du.

Haurrei zuzendutako programak GurasoLeku, Amaraun Kluba eta Gazte Kluba dira: 0 eta 5 urte bitarteko haurrak dituzten sendiei zuzendutako ekimen eta hitzaldiak; 2 eta 8 urte artekoentzako aisia ekimen edota familian egiteko jolasak, tailerrak eta abar; eta 9 eta 12 urte bitartekoentzako aisia jarduerak aurrera eramaten dituzte, hurrenez hurren. Gazteentzat, berriz, Kuadrillategi (DBH 1-4 mailakoentzako) eta Faktoria (16 eta 18 urte artekoentzako) aisialdi egitasmoak martxan dituzte dagoeneko.

Helduek ere badute nola murgildu euskararen uretan. Talde iraunkorrak hiru izango dira



Solasikiden izena emateko azken eguna hilaren 31 izango da, asteartea. TXINTXARRI

aurten: Plaza Dantza, Xumela korua eta Titare jostungintza. Horrez gain, aukera dute Solaskide programan jarduteko, hau da, euskalduntze prozesuan ari diren pertsonak eta ohikoan hizkuntza horretan trebetasun osoz mintatzen direnak elkartzen dituen horretan. Gainera, zenbait ikastaro egin ahalko dituzte, hilabetero bat.

Bestalde, bertsolaritza eta beste diziplina artistiko batzuk uztartzen dituen Udaberriko Bertso Saioa prestatuko dute aurten ere eta zenbait erakusketa, kontzer-

tu eta bestelako jarduerak antolatu Jalgi Kafe Antzokian.

Herriko jaietan ere bai

Bere egitasmoak aurrera eramateaz gain, Lasarte-Oriako ospakizun ugari prestatu edo antolatzaileekin kolaboratzen du. Horren adibide dira Euskal Jaia, San Tomas eguneko azoka, Olentzero eta Mari Domingiri harrera, Euskal Inauteriak, hurrentzako ekimenak Inauterietan, Azkorteako erromeria, sanpedroetako jarduerak edota Santa Ana eguneko ospakizunak.



NEURE KABUZ
JEXUX ARTETXE

Kate historikoa ezin da eten

Joandako asteburuan milaka gazte euskaldun bildu ziren Iruñea inguruan, Mugimendu Sozialistak deituta. Euskal ezkerren esparruan, hautsak ederki harrotu dituen korronea gorpuztu dute. Oihartzun handiko dinamika dela egiaztatu zuten, berriro ere. Zalantzarik gabe, ulertzen saiatu behar gara. Nolanahi ere, egin dituzten hitzaldien ondorioen artean, "belaunaldien haustura" bilatzen ari direla azpimarratu dute prentsari agertu dizkieten. Gazte hauen gogoeten muina puntu horretan jartzea oso deigarria iruditu zait.

Egia esan, historia zerotik hasteko grina hori ezaguna zaigu gure herrian. Sasoi batean, jende askok *Carpe diem* lokuzio latinoa gorensten zuen. Egunean bizi behar zela, iraganaren esperientziari destainaz eta geroaren ardurarik gabe. Aldiz, gaur egun kezkatzen gaituena alderantzizkoa da. Oraingotasun azeleratu batek gatibatuta bizi omen garelako. Agian, Benito Lertxundik irudikatutako "denbora ttipiaren araudia" nagusitu zaigula eta, arriskuez ohartarazi beharko gintuen oroimenik gabe, harrapaturik gauzkan labirintoaren atariraino ekarri gaituela kexu gara.

Dudarik gabe, garaian garaikoaren zentzua ez da galdu behar, bizi dugun aldiak berariazko zereginak dakartzkigu eta. Ikuspegi abertzalearentzat ordea, historia etenik ez duen katea da. Euskal belaunaldien arteko segidak bermatu duelako baikara milaka urteko iraualdia izan duen herria. Izan ere, esperientzia historikoaren irakaspenetatik sendotu da gure herria subjektu gisa. Igarobide historiko horren jabe izateak jarri baikaitu etorkizunaren jabe izateko bidean. Horregatik, herria fluxu historikoa da. Azken batean, belaunaldi bakoitzak aurrekoek utzitako guztiarekin hautsi ahal izango balu, aurrerabide historikoaren ideia erabat gezurtatuta geratuko litzateke. Zorionez, historiaren katea ezin da nahierara eten.

N-1 errepidea moztuko dute, Lasarte-Oria parean

Itxiberrieta biribilgunea osatze aldera, Lasarte-Oriako hegoaldeko N-I-451 lotunean (Allerru) biribilgunea egiteko proiektuko obrak direla eta, lan batzuk egingo dituzte hilaren 21ean eta 22an, eta horrek trafikoan era-

gina izango du N-1 errepideko 450,900 eta 451,500 puntuen arteko zatian.

Lanak larunbateko 06:00ak eta igandeko 20:00ak bitartean egingo dituzte. Asteburu osoan, obrek sor ditzaketen eragozpenak saiheste aldera, A-15 errepidea erabiltzea gomendatu du Aldundiak, Donostiara sartzeko edo bertatik irteko.

SALGAI:



Jalgi tabernan, Ttakuneko bulegoan eta sarean labur.eus/aterkiak



Euskararen aterpe!!



aterkiak

txintxarri

'Barraskiloek baino bat gehiago' kaleratu du

Maitasun erduei buruzko hausnarketa egin du Ane Labaka Mayoz idazle lasarteoriatarak aurkeztu berri duen lanean. Bere gurasoak banandu egingo direla jakinarazten dioten Sara izeneko haur baten begiradatik egin du kontakizuna

Txintxarri

10-11 urteko Sara izeneko neska bat da Ane Labaka Mayoz herritarrak argitaratu berri duen *Barraskiloek baino bat gehiago* nobelaren protagonistak. Bere gurasoek banandu egingo direla jakinaraziko diote, eta eszena zehatz horretatik abiatuta garatuko da kontakizun guztia. Horrela, ordura arteko familia egonkorra zalantzan nola jartzen den, eta nola berregituratuko den jaso ahal izango dute irakurleek.

Emaitza nobela bat izan den arren, idazlearen hasierako asmoa ez zen hori, baizik eta album ilustratu bat sortzea. Hala, sortze prozesuan, Erein argitaletzeko editore Uxue Razquinen proposamenari jarraiki, hasierako lana garatu egin du, eskuartean duenera iritsi arte. Berriki aurkeztu du nobela Donostian, eta azken emaitzarekin "oso gustura" agertu da.

Lasarte-Orian jaio zen Labaka, 1992. urtean eta bertsolaria eta



Labaka, kaleratu duen nobela eskuartean duela. EREIN ARGITALETXEA

idazlea da. Euskal Ikasketak egin zituen, Gizarte Antropologiako Masterra eta Ikasketak Feministak eta Generokoak. 2019. urtean *Bertsolaritza feminismitik (bir)pentzatzen* liburua sortu zuen Miren Artetxe Sarasolarekin batera, eta, 2021. urtean, berriz, *Algara mutilatuak*

saiakera kaleratu zuen. 2018. urtean *Ezpainetako* album ilustratua ere argitaratu zuen (Peru Abarka saria lortu zuen), eta baita *Totototo* haurrentzako albuma ere; 2021. urtean izan zen azken hori. Iaz, 2022an *Erradikalak* antzerki liburua ere ondu zuen.

Ihittenen dokumentala Hariak zinemaldian emango dute

Azaroaren 4an proiektatuko dute 'Lasarte-Oria: istorio zumez egina', Kulturarteko Plaza Feministan, 11:00etan

Txintxarri

Hariak erresistentzia istorioen zinemaldiaren bigarren aldia aurrera eramango dute Hernanin azaroaren 2tik 12ra. Emango duten dokumentaletako bat Ihitten elkarteak egindako *Lasarte-Oria: istorio zumez egina* izango da, azaroaren 4an, 11:00etan, Kulturarteko Plaza Feministan. Proiektzioaren ostean solasaldi bat egingo dute Ihitteneko kideetako birenkin, Idoia Garzes Aldazabal eta Inge Mendioroz Ibañezekin.

Hiru belaunalditako dozena bat pasatxo emakume elkarriz-



Zinemaldiaren kartela. HARIAK

ketatu dituzte, beraien bizitza kontatu eta Lasarte garai batean emakumeek nolako zen azaltzeko. Ekarpen horiek, zumearekin bezala, ehundu egin dituzte sortzaileek, herriaren historia osatuz.

Armeniako egoera ardatz

Kronika hedabideak berri eman duenez, Armeniako egoera izango da aurtengo zinemaldiaren ardatza, herrialde horretan bizi duten egoeratik eta azaroan zehar bertako artista baten (Araks Sahakhyan) erakusketa jarriko dutelako ikusgai.

Antolatzaileek zehaztu dute sei film luze eta lau labur proiektatuko dituztela, Euskal Herriko nahiz kanpoko erresistentzia istorioetan oinarritutakoak. Aipatutakoez gain Espainia, Txile, Kenia, Kolonbia, Argentina, eta abar.



Lasarte-Oriako neska* gazte ugari, Usurbilgo Baterajotzean. ASUNAK TALDEA

Utopiak lehertzeraino lanean jarraitzeko indarra hartu dute

Usurbilen egindako Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzean parte hartu dute lasarteoriatar askok

Txintxarri

Euskal Herriko txoko desberdinetatik etorritako milaka pertsonak parte hartu dute Euskal Herriko Neska* Gazteen Baterajotzean, Usurbilen hilaren 13tik 15era aurrera eraman zutenean, *Utopiak lehertzeraino* lelopean. Han izan ziren baita ere lasarteoriatar ugari. Asunak talde feministako kideek adierazi dutenez, "izugarria" izan da esperientzia: "Neska* gazteok saretu eta harremanak sortzeko espazio bat eraiki dugu eta honakoa argi dugu: gaur egungo sistema ez dugu zainduko eta

borrokan jarraituko dugu utopiak lehertzeraino".

"Elkargune fisiko bat baino askoz gehiago" izan dela nabarmendu dute antolatzaileek. Aipatu hiru egun horietan tailerrak, mahai inguruak, otorduak, konzertuak... eta ekimen askoz gehiago aurrera eraman dituzte, baita gero eta hurbilago dagoen azaroaren 30eko greba feministarokorra jorratu ere. Ildo horretatik, zaintza sistema komunitario eta publiko baten aldeko lanuzte horretan ardaztutako egitaraua garatu dute Baterajotzean.



Lasarte-Oriako mugimendu feministako zenbait kide. MUGIMENDU FEMINISTA

Greba feminista orokorra antolatzen

Zaintza sistema publiko eta komunitario baten aldeko greba deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak azaroaren 30erako. Herriko taldea hasi da lanean eta jakinarazi du hurrengo batzar ez mixtoa gaur egingo duela, hilak 20, 18:00etan, Antonio Mercero aretoan.

Lasarte - Oria 2023

gozatu!

Urriaren 16tik 28ra, kontsumitu
Lasarte-Oriako establezimendu hauetan
sari bat lor dezakezu!



Saririk gabeko txartelek
erosketa-bonuen
zozketan parte hartuko dute

2.000€
Erosketa-bonoetan



LASARTE-ORIA
UDALA-AYUNTAMIENTO



LASARTE-ORIA
TRATUA ON BAT
UN BUEN TRATO

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



aterpea

LOGOPEDIA HITZ-KIRIBIL

OIHANA ESTÉTIKA

PELUQUERÍA MARIAN OLAIZOLA

HALCÓN VIAJES

PODOLOGÍA AMAIA OLONDRIS

SILVIA LUIS ARBIZU ADMÓN. DE FINCAS

ACADEMIA DE INGLÉS STRATFORD

PELUQUERÍA BEA

DECO 75 TEXTIL HOGAR

INMOBILIARIA RK

ADATS ORRAZTEGIA

ÓPTICA IRIGOYEN

MABEL MODA

BIZKER RÓTULOS

CENTRO DE MASAJE KIMA

CALZADOS LEDER

DULCE TENTACIÓN

IMAGINE JANTZI DENDA

NORTH TEAM NUTRIZIOA

SORAYA GALLEGO MICROPIGMENTACIÓN

PELUQUERÍA MANI'S

ADMINISTRACIONES BARDAJI

HAUNE INTERIORISMO

ZUBIETA MOTOR

GIMNASIO SAITO

PELUQUERÍA Y ESTÉTICA SPLENDOR

TEJIDOS FERNÁNDEZ EHUNAK

AMA YOGA

BOTE TATTO

FARMACIA ELI LASA

MUEBLES ELBUME

ZAPATERÍA ITURBE

VENTANAS ISU LEIHOAK

VENTANAS ALCAR

URRUZOLA MERTZERIA

SANTANA INFORMÁTICA

PERFUMERÍA MAIANE

PELUQUERÍA MARBELL

PELUQUERÍA DE CABALLEROS ANA

OSTEOPATÍA NOELIA CALERO

ORUE BOTIKA

ORMAZABAL LORADENDA

ORBELA EKODENDA

ÓPTICA LIZARRI

OLA ENMARCACIÓN

NOGUES MODA

NOAOA BIDAIK

NATURHOUSE

MULTIÓPTICAS LASARTE

MERCERÍA OLMÍ

MERCERÍA ARITZA

LOTERÍA IZAGUERRI+C

GESTORÍA BETELU

FERRETERÍA-CERRAJERÍA JOSEMA

FERRETERÍA SUKOA

ELECTRICIDAD ARREGUI

CLÍNICA DENTAL ALDAZ

CARREFOUR EXPRESS

BIDEO LAGUNAK

BERASATEGI KAFEAK

ALBA MODA

ADMINISTRACIÓN DE FINCAS MILLA

Ehunka pintxo doan taberna hauetan:

RESTAURANTE HERRIKO ETXEA

ARIMA GASTROTABERNA

VIÑA DEL MAR KAFETEGIA

CAFÉ-BAR BUENETXEA

ARUPE TABERNA

PLAN B KAFETEGIA

HIRU ALDETA TABERNA

AVENIDA TABERNA



TXINTXARRI

Zorigaiztoak, inspirazio

Chirigota de Fermin y Antoñito taldeak *Tó me pasa a mí: 'Los desgraciaitos'* ikuskizunaren emanaldia egin du Manuel Lekuona Kultur Etxean, eta herritar ugari bertaratu da saioa ikusteko. Puerto del Realeko taldeak, musika, kritika eta umorea uztartu ditu, halakoetan ohikoa den

moduan. Chirigotaren zatiak azaltzeaz gain, kantatutakoaren atzeko historiaren berri ere eman diete: Covidaren ondorioz, bertan behera utzi beharreko ikuskizunak, La Palmara egindako bidaia gorabeheratsua... Egia izan ala ez, gogotik barre eginarazi diete ikusleei.

Urteak bete, abenturak bizi!

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak 35 urteko ibilbidea ospatzen aritu dira azken hilabeteetan *Urteak bete abenturak bizi* ikuskizunarekin. Etxean, Lasarte-Orian egin dute azken emanaldia. Sudurgorriak maitasuna ematen eskuzabalak direnez, beraien urtebetetze festa TXINTXARRI-rekin partekatu nahi izan dute, hilaren 1ean 30 urte bete zituelako.

txintx  rri ³⁰ _{urte!}



TXINTXARRI

Gozatu ederra hartu dute Sasoeta auzoko jaietan

Herriko festen aurtengo zikloa itxi dute adin guztientzako jarduera ugari aurrera eramanda

Txintxarri

Sasoetako jaiek iraganean izan zuten ospea berreskuratzea da antolatzaileen helburuetako bat, eta, aurtengo festak nolakoak izan diren ikusita, bide onetik doaz. Adin tarte guztietako he-

rritarrei zuzendutako makina bat jarduera aurrera eraman dituzte: txupinazoa hasteko eta azken traka amaitzeko; helduen nahiz haurren danborradak; 40 de Fiebre taldeko kide ohi Juan Mari Cerezori omenaldia; otor-

du ugari; haurrentzako jolas eta kirol jarduerak; Radio Rebelde Covers edota The Noise Makers taldeen kontzertuak; 80. hamarkadan girotutako musika gaua; erraldoi, buruhandi eta zezensuzkoak; eta abar.

Ezusteko ekimenik ezean, Sasoetakoak izan dira Lasarte-Oriako auzo bateko aurtengo azken festak. Erdigune, Zabaleta, Oria eta Basaundikoak dira besteak gaur-gaurkoz, herri osoa barnebiltzen duen sanpedroez eta Sorgin Jaiez gain.

Herria oihan bilakatuko da

2024ko Inauteriak prestatzen hasi da Lasarte-Oriako Udala konpartsekin batera eta dagoeneko badugu gaia, *Oihana*. Animalia, tribu edo garai ezberdinetako pertsonaiez beteko da gure herria datorren urteko otsailaren 8tik 12ra.

Udaleko Festak saileko buru Txus Alonsok jakinarazi du parte hartze prozesu bat egin dutela eta 47 proposamen jaso dituztela.



TXINTXARRI

Zabaletako auzotarrek Udazken Festa egin dute


Udazken Festa berezi eta polita egin dute Basotxo plazan bildu ziren auzotarrek, berriki hasitako urtaroari ongietorria emateko. Haurrek udazkenari lotutako marrazkiekin mural bat osatu dute eta amaitzean elkarrekin lokalean jarri dute ikusgai. Ondoren, afari merienda egin dute plazan. Hori dena, Samba Badago taldeak girotuta.



Basotxo plazako giroa. ZABALETA AUZOLAN

Aste Kulturalerako motorrak, bero, flamenkoarekin

Gaur hasiko da Semblante Andaluz elkarteak antolatutako Aste Kulturala, hilak 20. Motorrak ederki berotu zituzten iragan astean, Cuadro del Sur flamenko taldeak eragile horren Atsobakarreko egoitzan eman zuten ikuskizunarekin. FARAE Euskal Herriko Andaluziar Etxeen Federazioak antolatu zuen.



Flamenko emanaldia. S. ANDALUZ



Helduen danborradak auzo osoa zeharkatu du. TXINTXARRI



Ezker-eskuin: Joxe Mari Agirretxe, Zigor Iriondo, Olatz Arozena, Ixiar Arteaga, Sandra Barkaiztegi, Pablo Barrio eta Josu Agirretxe. ISAAC FARRÉ

Aurreneko borobila, komunikazioari buruz

Borobilean Elkarteak eratu du herritar talde batek, elkarren arteko hausnarketa, eztabaida eta iritzi elkartrukea bultzatzeko. Lehen saio irekia hilaren 24an egingo dute, Joseba Sarrionandia idazle eta pentsalariarekin, Antonio Mercero aretoan, 19:00etan

Txintxarri

Komunitatea osatzen dutela eta komunitateak osatzen dituela sinetsita, herritar talde batek Borobilean Elkarteak sortu du, Lasarte-Oria, Euskal Herria eta mundu osoko gaien bueltan informazioa, hausnarketa, eztabaida eta, batez ere, aurrez aurreko harreman komunikatiboa bul-

tzatze. Hilaren 24an Joseba Sarrionandia idazle eta pentsalaria gonbidatuko dute Antonio Mercero gunera, 19:00etan, komunikazioaz jardutera. Kazetarien Elkargoak saritu berri duen Iñaki Petxarroman eta Ixiar Arteaga kazetariak aurkeztuko dute hizlaria eta geroko tertulia bideratuko.

Joxe Mari Agirretxe, Zigor Iriondo, Olatz Arozena, Ixiar Arteaga, Sandra Barkaiztegi, Pablo Barrio eta Josu Agirretxe egitasmo horretako kide izango dira. Makina bat arrazoi eman dituzte ekimenarekin bat egiteko. Iriondok urrats hori egitea erabaki du "aukera ona" delako gaur egungo sare sozialen "zurrumbilotik" ate-

ratzeko, "buruz buru elkarren alboan eseri eta gaitan sakontzeko, azalean geratu gabe". Nabarmendu du mintzagai jakin batzuk eramango dituela saioetara baina partaideen proposamenak "gustura" jasoko dituztela.

Lehen borobilera, esan bezala, Joseba Sarrionandia gonbidatuko dute. Bigarrena azaroan egingo dute, 23an, Arozenak aurreratu duenez. "Foro aproposa da zaintza bezalako kontuez hitz egiteko. Azaroaren 23an gai horri buruzko mahai inguru bat aurrera

eramango dugu, Euskal Herriko mugimendu feministak deitu duen greba orokorra baino aste bete lehenago". Arteagak hartu du hitza gero, egitasmo eta taldearen "konfiantza osoa" duela esateko. "Jende asko elkartzen bagara, iruditzen zait gauza oso interesgarriez hitz egingo dugula eta gure iritziak osatu egingo direla besteak entzutean".

"Elkarrekin osatzen gara"

"Norbanako gisa ez gara ezer; pertsonok elkarrekin gaudenean osatzen gara, kasu honetan, borobilean gaudenean", hausnartu du Barriok. Forma geometriko hori egokia dela deritzo, bazkarietan eta gertatzen dena adibide gisa jarrita: "Mahai borobil batean eseriz gero, denek denak ikusten dituzte, baina betikoetan jesarrita, ez". Iruditzen zaio aukera ona izan daitekeela herritarrek elkar ikusi, gogoeta egin, eztabaidatu, eta, zergatik ez, haserretu, betiere "modu erakitzaile batean".

Euskal Herriko zein nazioarteko gaiak jorratuko dituzte Borobilean, tokikoak ahaztu gabe. Hor jarri du fokua Barkaiztegi: "Gure herriaren beharrez hitz egin genezake eta nahi dugunari buruz hausnartu, borobildu". Norabide horretan, sare sozialak ere tresna baliagarriak izan daitezkeela uste du.

Josu Agirretxek adierazi du "gogoa eta grina" dutela iritziak partekatu eta trukatzeko, "zurrumurruetatik harago joateko asmoz elkartu eta hitz egiteko".

BIGARREN SAIOA AZAROAREN 23AN EGINGO DUTE: MAHAI INGURU BAT ZAINZARI BURUZ

Lasarte-Oria, "20.000 erpinetako cromlecha"

Gotzon Huegun lasarteoriatarak Askatasunaren parkean jarritako *Geroaren memoria* eskulturaren bueltan bildu dira ekimena martxan jarri duten herritarreko batzuk eta honako manifestu hau irakurri dute:

"Oteizak borobilaren interpretazio poetiko eta antropologiko ederra utzi zigin. Cromlecharen irudia eta sinbologia erabili zuen hori adierazteko, mairu-baratzarena, alegia, jentil-baratzarena. Horren arabera, borobila ez litzateke bakarrik figura geometriko bat; borobilak harremantzeko modu espezifiko bat

islatzen eta proposatzen digu. Borobilaren ertz bakoitzak, puntu bakoitzak, indibidualitate bakoitzak azkenean, bere berezko eta errepikaezinak diren koordenadetatik, harreman zuzen eta berdintasunezkoa sortzen du beste subjektibitateekin, beste ikuspegiekin. Berdinen geometria sortzen baitu borobilak, alegia, ez baitu ez erpin nagusirik ez ertz mailaketarik, ez goia ez behea, ez aurrea ez atzea, ez hurbilago edo urrutiago, denak erdigunearekiko distantzia berean. Borobilean jarrita, denek denak elkar ikusten dituztelako,

denak denen aurrean jarrita elkarren berri zuzena dutelako, ertz ikusgaitz edo ikusiezirik ez dagoelako. Borobila ez da perfektua, baina borobila da munduak duen berezko forma naturala, guk gustukoaren dugun forma, hain zuzen.

Ezen, eta Oteizari jarraituz, borobilak hutsa sortzen du. Baina hutsa ez da ezereza. Hutsa, borobilaren barneko espazio inmateriala da, erpin guztiek, subjektibitate guztiek, komunean duten espazioa da: komunitatearen espazioa, alegia. Huts horretan, plaza horretan, definitzen da eta egikaritzen da komunitatea. Horregatik dugu

borobilean aritzeko bokazioa: definitzen eta egikaritzen gaituelako. Borobilean elkarri begira, elkarrekin hitz eginez, elkarri entzunez, elkarrekin ekinez, elkarri sentituz, elkarrekin pentsatuz eta hausnartuz, elkarrekin partekatuz, elkarrekin heziz eta osatuz, elkarrekin... Elkarrekin komunitatea eraikiz berdinetik berdiner.

Komunitatea osatzen dugula eta komunitateak osatzen gaituela sinesten dugulako jarri dugu bueltaka Borobilean Elkarteak. Lasarte-Oria 20.000 erpinetako cromlecha, mairu-baratza, jentil-baratza, bilakatzea dugu amets. Hori hasteko".







Sudokua

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak, TRIKUA hitza osatzen duten hizkiez (T, R, I, K, U eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, begiratu irudiño bakoitzari zein hizki dagokion eta biribilean idatzi. Esaera zahar bat agertuko zaizu.




Hitz ezkutiak

Zer diote gure neska-mutilek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki geziek agintzen dizuten moduan. Abiapuntua, bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxo duzu. Jakin ezazu trikuari deitzeko moduz ari direla biak.





BAI POLITA
HITZ HORI!



Nahas-Mahas

Ene, baina zenbat modu ditugu TRIKUA esateko? Alboko orrialdean bi modu dituzu, eta hemen hirugarren bat. Eraman hizki bakoitza bere geziak agintzen dizun tokira eta hitz hori zein den asmatuko duzu.

Engainagarriak

Ba al dakizu zenbat triku hiltzen diren errepidea pasa nahian, kotxeak harrapatuta? Guk ere ez dakigu zehatz-mehatz zenbat diren, baina asko eta asko direla ziur da. Gaixoak. Honoko zortzi

irudi-zatitxoen artetik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Bereiz itzazu.



Bilatu

Gure trikuari barraskiloak, bareak, intsektuak, harrak, txoritxoen arrautzak, zizak fruitu gorriak eta meloiak gustatzen zaizkio. Bilatu eta margotu. Bide batez, elementu bat falta da. Zein?

Sariak jaso ostean, lehiarako prest berriro

Buruntzaldea IKT Laura Igea eta Juan Vicente Martin igerilariak Itsas Zeharkaldien Ligako sariak jaso dituzte. Absolutu, junior eta infantil mailako kideek denboraldia hasiko dute hilaren 21ean, Ordizian; Neguko Ligako lehen jardunaldia jokatu dute

Txintxarri

Hilabeteko prestaketaren ostean, Buruntzaldea IKTko igerilariak lehiari hasiko dira.

Infantil, junior eta absolutu mailako kideak izango dira lehenak uretara jauzi egiten. Hilaren 21ean, Ordizian emango diote hasiera txapelketa garaia; Majori kiroldegian Neguko Ligako 1. jardunaldiari aurre egingo diote.

Estilo guztietako probak gainditu beharko dituzte federatu zein eskola mailako igerilariak. Horien artean, proba luzeak nabarmentzen dira: bizkar zein



Igea (ezkerreko irudia) eta Martin (eskuineko argazkia), dominak jasotzen. GIF

tximeleta estiloko 200 metroko proba, 1.500 m. librea eta 200 m. lau estilo proba. 4 x 200 m. erreleboa ere lehiatuko dute igeriketa taldeetako kideek.

Alebin mailako kideak ere gogor ari dira lanean. Lehen jardunaldia astebete geroago izango dute, hilaren 28an, eta gainera, Maialen Chourraut Kiroldegian jokatu da.

Ligako saioan bakarkako hiru proba izango dituzte: 200 m. lau estilo, 100 m. libre eta 50 m. bizkar. Taldeka 4 x 200 m. libre lehiatuko dute.

Buruntzaldea IKTko igerilariak izan dezaketen denboraldiko lehen lehiaketako urduritasunari maila aldatuta edo proba berrietan lehiatzea gehituko zaie kasu batzuetan. Hala ere, igerilekuan lehiatzeko gogoz daude gaztetxoak.

Ligako sariak

Bien bitartean, hilaren 11n, 2022-2023 denboraldiari amaiera eman zion Gipuzkoako Igeriketa Federazioak (GIF). Donostiako Kirol Etxean ospatu zen GIF

Galan iazko ikasturteko modalitate ezberdinetako sariak banatu zituzten eta ekainetik irailera egin den Itsas Zeharkaldiko Ligako saria jaso zuten igeriketa taldeko bi kidek.

Buruntzaldea IKTko hamaika kidek parte hartu dute Ligan, baina Laura Igea eta Juan Vicente Martin igerilariak sailkapeneko lehen postuetan amaitu zuten lehiaketa.

Beterano 2. mailako lehen postuan sailkatu zen Martin, udan, eta txapelkunaren urrezko oroigarria eman zion federazioko ordezkariak ekitaldian. Igerilariak guztira 400 puntu eskuratu zituen; honako itsas zeharkaldietan lortu zituen puntuak: Itzurun, San Anton Bira, Getaria-Zarautz eta Paseo Berria.

Igeak, aldiz, San Anton Biran, Getaria-Zarautz, Paseo Berria eta Kontxako Badia Itsas zeharkaldietan egindako lanarengatik 397 puntu batu zituen eta Master + mailako bigarren postuan sailkatu zen Ligan. Hori dela eta, zilarrezko domina jantzi zioten galan.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Beti Gazte KJKE Igandea. 11:40. Michelin kirol gunean.
GORENGOEN MAILA
Getariako Keta FT - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Mendibeltz, Orion.
ERREGIONALEN I. MAILA
Texas CF - Intxurre KKE Larunbata. 17:30. Zubieta Z5, Donostian. Ostadar SKT - Tolosa CF B
Igandea. 09:45. Michelin kirol gunean.
OHOREZKO JUBENILA
Ostadar SKT - Santo Tomas Lizeoa Larunbata. 16:40. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN I. MAILA
Ostadar SKT C - Texas CF Larunbata. 18:35. Michelin kirol gunean. Beti Ona CD B - Ostadar SKT B
Larunbata. 16:00. Beraun, Erreterian.
OHOREZKO KADETEA
Hernani CD - Ostadar SKT Larunbata. 12:00. Zubipe, Hernanin.
KADETEEN I. MAILA
Texas CF - Danena KE B Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean. Intxaurdi CD C - Ostadar SKT (neskak)
Igandea. 16:15. Cesar Benito, Donostian.
INFANTIL HANDI
Mundaiz SCD - Ostadar SKT Larunbata. 11:15. Martutene, Donostian.
INFANTIL TXIKI

Ostadar SKT - Urnieta CD
Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.
INFANTILEN I. MAILA
Texas CF - Ostadar SKT Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Eguzki AF - Mele Mele Samaniego-Orixe Tolosala Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.
III. MAILA
Eibartarrak FT - Eguzki ISU Leihok Larunbata. 16:45. Univ. Laboral, Eibarren.
GAZTEEN MAILA
Eguzki B. Ayesa - Antigua Luberrri KE Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETE MAILA
Antiguoko KE - Eguzki G. Goxua Igandea. 10:00. La Asunción ik., Donostian.
INFANTIL MAILA
Aloña Mendi KEA - Eguzki Bar Escalerillas Larunbata. 10:15. Zubikoa kirol., Oriatin.
SASKIBALOIA
I. MAILA
AZ Casa de La Rioja - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Benta Berri kir., Donostian.
III. MAILA
Ostadar SKT - Zurrut SK Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kir.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
Ostadar SKT - Biko Asesoria Oiarso OSKT

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
KADETE ERRENDIMENDU URREA
Saski Axular - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Benta Berri kir., Donostian.
KADETE PARTAIDETZA
Bera Bera Zurriola - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
INFANTIL ERRENDIMENDU URREA
Ostadar SKT - Ordizia KE Larunbata. 09:15. Majori kir., Ordizian.
INFANTIL PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Bera Bera Ulija Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kir. Ostadar Urdina - Bera Bera Amara
Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kir.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA
Ostadar SKT - Galdakao BT
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Kora Green City Mendebaldea - Ostadar SKT
Larunbata. 16:30. Mendebaldea BHI, Gasteiz, Araban.
JUBENIL-SENIOR
Hernani KE 1 - Ostadar SKT (S) Larunbata. 16:00. Hernaniko kiroldegian. Hernani KE 2 - Ostadar SKT
Larunbata. 16:00. Hernaniko kiroldegian.
KADETE MAILA
Lizardi Bat - Ostadar SKT Larunbata. 13:00. Lizardi BHI, Zarautzen.

INFANTIL MAILA
Ostadar SKT B - Oarso Urdina
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir. Alta - Ostadar SKT A
Larunbata. 10:00. Pio Baroja kirol., Donostian.
PILOTA
ESKUZ BINAKA, 3. SENIORRA
Intza KE - Beloki
Igandea 11:00 (1. partida). Michelin kirol guneko pilotalekua.
ESKUZ BANAKA, 1. INFANTILA
Intza KE (Jauregi) - Intxurre Larunbata. 16:00 (2. partida). Michelin kirol guneko pilotalekua.
ESKUZ BANAKA, 2. INFANTILA
Intza KE (Lopez) - Behar Zana Larunbata. 16:00 (3. partida). Michelin kirol guneko pilotalekua.
Intza KE (Iparragirre) - Oiarpe
Igandea. 11:00 (2. partida). Michelin kirol guneko pil. Hernani - Intza KE (Maiz)
Igandea. 11:00 (3. partida). Udaleko pil., Hernanin.
ESKUZ BANAKA, 3. INFANTILA
Intza KE (Lizarraga) - Behar Zana Larunbata. 16:00 (1. partida). Michelin kirol guneko pil.
ESKUZ BANAKA, 1. ALEBINA
Goierri - Intza KE (Garmendia) Ostirala. 19:00 (2. partida). Ederrena pil., Urretxun.
GOMAZKO PALA, 3. SENIORRA
Altzatarra 1 - Intza KE Larunbata. 12:00. Altxazo pil., Donostian.

ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Txingudi RT
Larunbata. 15:00. Michelin kirol gunean.
18 ETA 16 URTEZ AZPIKOA
Zarautz Beltzak RT - Iruñea RC Larunbata. 10:00/11:30. Asti, Zarautzen.
14 URTEZ AZPIKOA
Zarautz Beltzak taldeko gazteek zazpiko errugbi modalitateko topaketa dute.
Larunbata. 10:30. UPNA, Iruña, Nafarroan.
12 ETA 10 URTEZ AZPIKOA
Zarautz Beltzak taldeko gaztetxoek topaketa dute.
Larunbata. 10:30. San Miguel, Mutrikun.
IGERIKETA
NEGUKO LIGA
Buruntzaldea IKTko igerilariak Neguko Ligari hasiera emango diote. Larunbata. 15:00. Majori kirol., Ordizian.
AUTOMOBILISMOA
URRAKIRA IGOERA
Aitor Mansol Urrakira Igoeran parte hartuko du. Igandea. 10:00. Azpeitian
LASTERKETA
SALTO 15K KLASIKA
Lasarte-Oriako korrikalari ugari 26. Salto 15K klasikan eta 5 kmko proban parte hartuko dute. Igandea. 09:45. Donostian.



Urtero 150 lagun inguruk laguntzen diote Ostadarri krosa antolatzen. Horietao batzuk aurkezpenean izan ziren. TXINTXARRI

Boluntarioak omenduko dituzte 26. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoian

Herriko kirol proba esanguratsuenaren 26. aldia urriko azken igandean jokatuko dute, hilak 29, 10:30ean hasita. N-1 errepide gaineko Allerruko zubia Aldundiak asteburu berean eraitsiko duela-eta, Ostadar SKT kirol elkarteak ibilbidea moldatu behar izan du

Txintxarri

Gure herriko kirolaren festa handiena heltzear da. Ostadar SKT kirol taldeak iragarri du hilaren 29an izango dela 26. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia, 10:30etik aurrera. Lasterkariak, patinatzaileak eta ipar martxalariak aterako dira Geltoki kaltetik, Okendo plazan amaitzeko. Aurreneko biek 10 kilometroko bidea urratu beharko dute, eta, hirugarrenek, 5 kilometrokoa. Helduek lanak amaitzean, gazteen txanda izango da, 21. Korrika Festan parte hartuta.

Antolatzaileek zehaztu dutenez, aurtengo 1 zenbakidun dortsala "sinbolikoa" izango da, kirol proba hori errotzen eta ikur bilakatzen lagundu duten boluntario denak omenduko dituztelako. "Guztiak ezin izan ditugu batu, baina batzuk agerraldira gonbidatu ditugu; 150 bat lagun aritzen dira zeregin desberdinetan eta haiek gabe ezinezkoa litzateke krosa aurrera eramatea".

Aurtengo lasterketak "berritasun gutxi" dituela aipatu zuten aurkezpen prentsurrekoan, baina, azkenean, aurreikusitako baina aldaketa gehiago egin beharko dituzte, ibilbidean batez ere: Gipuzkoako Foru Aldundiak asteburu horretan eraitsiko du N-1 errepide gaineko Allerruko zubia eta partaideek ezingo dute igaro. Gauzak horrela, Oriako elizara iritsi arteko zatia ia-ia berdinduko dute (bertara ez dira industriagunetik iritsiko, errepidetik baizik). Karmengo Ama kaperara ailegatzerakoan, buelta hartuko dute herrira, orduan bai, lantegi arteko bidetik. Zirkuitu ibilbideko etxe parean dagoen gasolindegira arte iritsiko dira, hortik Txartel pareko industria gunera sartuko eta Txartel hotelaren ondoko biribilgunera aterako. Behin hori pasata, berriro ere pabiloietako errepidea hartuta, Zumaburuko elizaraino joango dira. Puntu horretan, ezkerretara hartuko dute eta Zumaburu auzoa zeharkatu San

Miguel okindegira iritsi harte. Hor ere, ezkerretara hartu eta Aldatz Hortz Klinika aurretik pasako dira, eta, Hipodromo etorbideko dorrearen aurretik igarotzean, Zubieta aldera hartuko dute. Hortik aurrera ere, ohiko ibilbidea izango dute, Okendo plaza sarreran helmugaratu arte.

Bestalde, *Berria* saria berreskuratuko dute. Euskara sustatzeko asmoz, komunikabide horrek eta Ostadarrek hitzarmen bat sinatu dute. Kale Nagusian tarreteko helmuga bat jarriko dute eta modalitate bakoitzeko lehen hiru emakumezkoek zein gizonezkoek aipatu hedabideak emandako produktu sorta bana jasoko dute.

Izen ematea, zabalik

Ostadarreko kideek gogorarazi dute euren webgunean izena eman dezaketela herritarrek. Tramite hori sarean egitearekin zailtasunak dituztenentzat, gaurtik aurrera (hilak 20) Manuel Lekuona Kultur Etxeko 1. solairuan egongo dira. 17:00etatik

Herritarrak, ederki lehan

Lasarte-Oriako korrikalariak ez dute atsedenik. Hilabete honetan astebururo ari dira lehan; batzuk gainera lehen postuetan sailkatu dira. Horien artean aipatzekoa da, Aloña Mendi taldeko Jon Presa Herranz herritarra. Hilaren 8an, Donostiako Hiru Hondartzetako krosean hirugarren izan zen eta hilaren 15ean, aldiz, Bilboko XVII. Nazioarteko Miliako proba irekian azkarrena izan zen.



Jon Presa Herranz (gorriz), podiumean.

HIRU HONDARTZAK KROSA

Bilbon Aloña Mendi taldeko herritarrak 1.609 metroko ibilbidea lau minutu eta 49 segundotan egin zuen eta maila horretako errekorretik segundo batera geratu zen.

Hiru Hondartzetako krosean lehen metroetan buruko postuetan izan ziren Presa eta Raul Gomez Margallo herritarrak. Kilometroak egin ahala, gerora irabazle izango zen Ander Sagarzazu donostiarrak aurrea hartu zuen eta atzetik hiruko taldetxo bat sortu zen, Presa herritarra barne. Azken kilometroetan talde hori desegiten joan zen eta Aloña Mendi taldeko kidea hirugarren postuan (31.47) iritsi zen helmugara. Gomez Margallok, aldiz, 32.16 behar izan zuen proba amaitzeko eta bosgarren sailkatu zen.

Bi horiez gain, beste herritarrik ere izan da lehen hamarren artean. Hilaren 14an, Oiartzunen VI Urkaberako Igoera proban Axerriak taldeko Beñat Los Arcos Ayerdi herritarra hirugarren izan zen. 1,6 kilometro eta 190 metroko desnibel positiboa duen proba 09.28ko denboran egin zuen.

Egun horretan bertan, Hiru Handiak proba jokatu zen. Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarte (LOTME) hiru kidek —Borja Granado Macazaga, Ainhoa Martinez Lauroba eta Jon Palet Amunarriz— egin zioten aurre 110 kilometroko probari. Granadok (12.24.45) eta Martinezek (22.06.55) helmuga zeharkatu zuten eta lehena hamaikagarren sailkatu zen.

Bestelako probetan ere izan dira herritarrak hilaren 12an. El Pilar - Martutene Jailetako krosean izan ziren Roberto Pera Agudo (25.09), Gorka Alvarez Esteibar (27.59), Jose Manuel Peña Asensio (28.36), Oscar Lopez Esteve (36.36) herritarrak eta Lasarte-Oria Traileko Murtxe Casas (32.51) kidea; Nerea Arteaga Martiarenak (35.45), aldiz, Tolosako Herri Krosean parte hartu zuen.

20:00etara artekoa izango da ordutegia, astelehenetik ostiralera. 28an berriz, egun handiaren bezperan, Michelin kirol guneako pilotalekura joan beharko dute inskribatzera, 11:00etatik 14:00etara edota 17:00etatik 19:30era. Azken aukera krosa hasi aurretik izango dute, 29an bertan, 09:00etatik 10:00etara. Dortsala eskuratzegatik 15 euro ordaindu beharko dituzte kirol elkarte bakoitzeko bazkide ez direnek, eta badirenek, 10 euro.

"Tramite hori azken egunera-ko uzten dutenek, kasua edozein izanda ere, 23 euro ordaindu beharko dituzte", ohartarazi dute antolatzaileek. "Hori da aurtengo aldiko beste berritasun

bat, izen ematearen prezioa igo izana; bizitzaren garestitzeak esparru guztietan eragin du eta dirua ez galtzeko asmoz hartu dugu erabakia".

Helduen ostean, gaztetxoak

Lasterketak eta sari banaketa amaitu eta gero haur eta nerabeen txanda izango da, eguerdian: 21. Korrika Festan parte hartuko dute. Izen ematea Manuel Lekuona Kultur Etxeko kafetegian egin beharko dute, gaurtik aurrera, 17:00etatik 20:00etara. Haur bakoitzak 7 euro ordaindu behar ditu, eta trukean, kamiseta tekniko bana eta, lasterketa amaitzean, bestelako opariak izango dituzte.

Buruntzaldeko bideez gozatzeko eguna

Buruntzaldeko XV. Ibilbideen Eguna ospatuko da hilaren 22an. Inguruko mendi eta bidetatik barrena ibiltzeko bost ibilbide daude aukeran. Ostadar Ipar Martxako kideek Lasarte-Oria eta Aginaga arteko ibilbidea eginez parte hartuko dute ekimenean

Txintxarri

Buruntzaldeko bidezidor eta bideak, landako paisaiatik barrena paseoez, belardiez eta basoez, baserri, baseliza zein kariobiez gozatzeko aukera izango dute aurtengo Buruntzaldeko Ibilbideen XV. aldian parte hartuko duten pertsonak. Bost ibilbideren eskaintza luzatu zuten eskualdeko udaletako Kirol saileko ordezkariak egindako agerraldian. Hilaren 22an aurrera eramango dute aipatu jarduera, 08:00etatik 14:00etara.

Herri bakoitzean, ibilbide zatien inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude. Bideetan, berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zutoinak jarri dituztela ere azaldu zuten udal ordezkariak. Seinale horiek guztiak udalerrri bakoitzaren identifikazio koloreak aintzat hartuz ipini dituzte (Lasarte-Oria: urre zaharra, Urnieta: berdea, Usurbil: laranja eta Andoain: urdina); hala, parte hartzaileek, bidea, seinale bat ikusten dutenean, zein



Buruntzaldeko kirol udal ordezkariak, aurkezpenean. URNIETAKO UDALA

ibilbidetan dauden jakin ahal izango dute.

Aplikazioa eta garraio zerbitzua

Navi Ruta izeneko aplikazioaren berri ere eman zuten. Sakelako telefonoarentzat egokia da, eta horren bidez, Buruntzaldeko ibilbideetako edozein egiterakoan, sistemak modu jarraituan emango duen informazioa (kopena, jarraitu beharreko norabidea, interes guneak...) jaso ahal izango dute erabiltzaileek. Aplikazioa deskargatzeko eta ibilbide bakoitza aktibatzeke udalerrri bakoitzean jarriak dau-

den paneletan jarriko diren QR kodeak eskaneatu beharko dira; kode horiek kontrol guneetan ere eskuragarri egongo dira.

Partaide bakoitzak abiatzen denean txartel bat jasoko du, irteerako herriak zigitatuta; horietako batek bi ibilbide eginez gero, oroigarri moduan opari bat jasoko du. Salbuespenak, Andoain-Lasarte-Oria eta Andoain-Usurbil ibilbideak izango dira, edozein norabidean eginez gero aipatuta oparia lortuko baita.

Bestalde, 12:00etan, Aginagan, Ezpaldiko gasolindegitik abiatuta autobus zerbitzua izango

Ibilbideak eta kontrol guneak

Bost ibilbideak:

- **ANDOAIN – LASARTE-ORIA.** Koloreak, urdina eta urre zaharra; 7,9 km.ko luzera du Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginda; oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoak beharrezkoak dira.
- **ANDOAIN – URNIETA.** Koloreak, urdina eta berdea; 4,8 km.ko luzera du; oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoak beharrezkoak dira.
- **ANDOAIN – USURBIL.** Koloreak, urdina eta laranja; 14,9 km.ko luzera du Andatzatik barrena (luzeena da); oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoak beharrezkoak dira.
- **LASARTE-ORIA – URNIETA.** Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9 km.ko luzera du; oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoak beharrezkoak dira.
- **LASARTE-ORIA – USURBIL – AGINAGA.** Koloreak, urre zaharra eta laranja; 9 km.ko luzera du (Santuenetik barrena Aginagako Mapil ingururaino); oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoak beharrezkoak dira.

Kontrol guneak:

- **USURBIL:** Santueneako auzoan, Zorrotzeko zubiaren parean eta Aginagan, Mapil inguruan.
- **ANDOAIN:** Udaletxe azpian.
- **LASARTE-ORIA:** San Pedro elizaren ondoko plazan.
- **URNIETA:** Udaletxe azpian.

da partehartzaile bakoitza abiatu den herrira itzul dadin. Bertatik orduro aterako da autobusa; azken bidaia 14:00etan egingo du eta 14:40ean iritsiko da Urnietara. Zerbitzu hau erabiltzeko, ezinbestean, hasieran jasotako txartel zigitatua aurkeztu beharko dela ohartarazi dute arduradunek.

Ipar martxakoen deialdia

Bakarka edo taldean gure inguruko bideez gozatu ahalko dute

Lasarte-Oriako herritarrek. Bakarrrik ibili nahi ez dutenek Ostadar Ipar Martxa taldeak egindako deialdiarekin bat egin dezakete.

Elizatzte plazatik aterako da taldea 09:00etan eta Lasarte-Oria eta Aginaga arteko bidea egingo du. Taldeko kideek bi aukera izango dituzte itzultzeko: batzuk Arratzain sagardotegira igo eta herrirako bidea hartuko dute bueltan eta besteek autobus zerbitzua erabiliko dute.

Ostadar Boleibol saileko kideak lehiaketa hasteko prest dira

Zazpi talde izango dituzte aurten lehiari urdin-beltzek. Gipuzkoako ligan aurreko fasea jokatu dute lehenik

Txintxarri

Ostadar Boleibol saileko taldeak kantxara ateratzeko irrikitan daude. Denboraldiko lehen neurketa ofiziala izango dute hilaren 21ean. Talde urdin-beltzak aurten hiru talde senior izango ditu lehiari. Horietatik bi Euskal Ligan jokatu dira eta bestea Gipuzkoako txapelketan.

Euskal Ligako gizonezko taldeak etxean hasiko du txapelketa, 18:00etan. Emakumezkoek



Jubenilen neurketa bat. TXINTXARRI

Gasteizera egingo dute bidaia; Kora Green City Mendabaldea izango dute aurkari.

Motorrak berotzeko

Gipuzkoako ligan ariko diren talde guztiek, aldiz, txapelketa nagusia prestatzeko aukera izango dute aurretiko fase batean.

Horretan Ostadarreko senior eta jubenil taldeek bat egingo dute multzo berean eta biek Hernanin dute lehen hitzordua.

Zarautzen Lizardi izango du aurkari kadete taldeak eta Infantilen A taldeak Altzaren aurka neurtuko ditu indarrak.

Maila horretako B taldeak, aldiz, etxeko berotasuna jasoko du; 09:30ean, Oiarso Urdinaren kontra ariko da.

1.200.000 euroko laguntza kiroldegi berria eraikitzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiak kiroldegia finantzatzeko bultzada eman dio udalari: 2025. urtean gastatu behar du

Txintxarri

Kiroldegi berriko lanen gastuak ordaintzeko 1.200.000 euroko laguntza jaso du Lasarte-Oriako Udalak eta horregatik eskerrak eman dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Baldintzetako bat diru hori 2025. urtean erabili behar dela eta alkatearen hitzetan, ez da epearekin arazorik egongo: "Aurreikuspenen arabera kiroldegi berriko lanak 2024. urtetik

2026. urteko hasierara egingo dira".

Lehiaketa martxan

Lanen esleipen prozeduraren egoera ere azaldu du alkateak. Lehiaketako pleguak udan landu ostean, enpresek euren proposamenak aurkezteko epea izan zuten; bost eskaintza jaso ditu udalak. Dokumentazioa eta baldintza ekonomikoak aztertu eta abendu aldera esleipena egin nahi du udalak.

KOMIKIA

HAUXE BAI JENEROAI

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

EUSKALTZALE INDEPENDENTISTON TOPAKETETAN ENTZUNDAKO LELOA

'EUSKADI' HITZA ERABILTZEARI UTZI

ETA EUSKARAREN ERREPUBLIKA ALDARRIKATU

ZORION AGURRAK

<p>Elene Zorionak gure etxeko sagutxo txikiarenari. Asko maite zaitugu!</p>	<p>Ailitz Zorionak printzesa. Oso ondo pasa eguna. 8 muxu goxo amatxoren partetik. Asko maite zaitut.</p>	<p>Danel Zorionak Danel!! Asko maitte zaitugu!! Erik, Ama eta Aita.</p>	<p>Erik Zorionak Erik Saurio!!! Asko maitte zaitugu!! Danel, Ama eta Aita.</p>	<p>Andrea Zorionak etxeko "bikiari", 25 urte puska! "Pura vida" aurrena eta errepublika batean gero, segi bizitzen eta gozaten! Muxu eta besarkada erraldoiak familiaren partez.</p>	<p>Liher Urteaskuan potto!! Zorionak asko matte haugun guztien partez!!</p>	<p>Maitane TXINTXARRI-ren hilabete berean betetzen dituela urteak lantaldeko kazetari fin honek! Aupa urriko jendea! Zorionak eta ondo ospatu, Ttakuneko lankideen partetik.</p>	<p>Haiz Zorionak!!! Lehengo astean ongi ospatu genuen arren, asteburuan ospakizunekin jarraitu dugu. Muxu pottoloa familia guztiaren partetik.</p>
--	--	--	---	---	--	---	---

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

- | | |
|---|---|
| <p>Internet</p> <ul style="list-style-type: none"> · txintxarri.eus/ zorionagurrak. · Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman. · Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean. | <p>Posta elektronikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> · Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua. |
|---|---|

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

<p>Ostirala, 20</p> <p>Min. 13° Max. 17°</p>	
<p>Larunbata, 21</p> <p>Min. 12° Max. 19°</p>	<p>Igandea, 22</p> <p>Min. 13° Max. 20°</p>
<p>Astelehena, 23</p> <p>Min. 14° Max. 20°</p>	<p>Asteartea, 24</p> <p>Min. 12° Max. 17°</p>
<p>Asteazkena, 25</p> <p>Min. 14° Max. 18°</p>	<p>Osteguna, 26</p> <p>Min. 13° Max. 17°</p>

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 20	ACHA-ORBEA
LARUNBATA, 21	URBISTONDO
IGANDEA, 22	URBISTONDO
ASTELEHENA, 23	GANDARIAS-URIBE
ASTEARTEA, 24	DE ORUE
ASTEAZKENA, 25	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 26	LASA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
 DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00
 K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'
 Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

ESKUTITZAK

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

ARGAZKI LEHIAKETA



Irabazleek sariak jaso dituzte

TXINTXARRI aldizkariak udako argazki lehiaketako sariak etxean dituzte dagoeneko irabazleek. Aldika enpresaren kutixia saskia Paula Herradorrek jaso du (ezkerreko irudia). *Gardentasuna* irudia aurkeztu zuen herritarrek eta epaimahai profesionalak –Isaac Farre eta Aitzol Etxegoien argazkilariak eta Aldika enpresako ordezkari Beatriz Perez– saritu du. Garazi Mutiloak (eskuineko irudia), aldiz, Ttakun Kultur Elkartearen produktu sorta jaso du. Irakurlek aurkeztutako argazkien artean Mutiloaren *Gau giroa* izeneko irudia politena zela erabaki zuten.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 089 380 zenbakira.

LANA

ESKAINITZA

Zientzia arloak, ingelesa zein pintura eta manualitateak gaiak eskainiko dituzten irakasleak behar dira ikasturte osorako. Interesatuak bidali CVa info@zitek-akademia.com helbidera.

Jornada erdian etxea garbitu eta sukaldatzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Kotxea izatea beharrezkoa da. Mugikorra: 644 11 61 22.

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erixeetan zaintza lanak ere

eginiko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo orduka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erixeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketa...) FP-2 mekanizatu egin da. Zurbietan bizi naiz. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zurbietan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. Harremanetarako zenbakia, 602 08 25 83.

BESTELAKOAK

OPARI

Katakumeak oparitzeko. Oso politak! Harremanetarako telefonoa: 628 90 41 30.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitetz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

▶ Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
▶ Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan **943-37 14 48**

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / bintxarri@takun.eus

OSTIRALA 20

LASARTE-ORIA Erakusketa

Antzinako irratiekin *Sonidos en el recuerdo/Soinuak gogoan* esposizioa ondu du Javier Solerrek. Astegunetako ordutegia 18:00etatik 20:30era artekoa izango da, eta, asteburuetakoa, 11:00etatik 13:00etara. Sarrera, doan.
Antonio Mercero gunea.

LASARTE-ORIA Batzarra

Zaintza sistema publiko eta komunitario baten aldeko greba orokorra deitu du Euskal Herriko mugimendu feministak azaroaren 30erako, zenbait sindikaturen babesarekin. Herriz herri ari dira antolakuntza taldeak martxan jartzen, baita Lasarte-Orian ere. Gure herriko mugimendu feministako kideek jakinarazi dutenez, batzar ireki ez mixtoak burutzen ari dira asteotan eta hurrengo ostiral honetan izango da.
Antonio Mercero aretoa, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Olga Serrano idazle lasarteoriatarak *Juguetes de niño* sádico liburua aurkeztuko du.
Kultur etxea, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren emanaldia aurrera eramango du; *Cerrar los ojos* proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak, Aste Kulturalari hasiera emateko, ohorezko ardoarekin topa egingo dute.
Okendo plaza, 20:00etan.

LARUNBATA 21

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak, Aste Kulturalaren barruan, honako jarduerak aurrera eramango ditu:
11:00etan, aurpegi margoketa, jolasak eta pote tiro. Haurrentzako



LASARTE-ORIA Jaia

Semblante Andaluz elkarteak XX. Aste Kulturala aurrera eramango du, eta horretarako, askotariko jardueraz betetako egia iragarri du. Ohorezko Ardoarekin topa eginaz emango diote hasiera aurtengo ekimenari, gaur. Gainerako ekimen guztiak, agenda honetan dituzue kontsultagai.
Okendo plaza, gaur, bihar eta etzi.

marrazki lehiaketa ere ordu berean hasiko da.

12:30etan, minidiskoa.

14:30etan, bazkari herrikoa.

16:00etan, sevilanaka.

17:00etan, zunba saioa.

18:00etan, runba flamenkoa.

19:30etan, Sabor al Sur taldearen emanaldia.

21:00etan, sevilanaka.

22:30etan, The Gu taldearen kontzertua.

Okendo plaza, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Jaia

Saustatxo elkarteak garagardo azoka aurrera eramango du. Honako menua dastatu ahal izango dute bertaratzen direnek: mota ezberdinetako hiru saltxitxa; *Chucrut*-a; patata purea; ukondoa eta sagar *Streusel*-a.
Saustatxo elkarteak 21:00etan.

IGANDEA 22

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Semblante Andaluz elkarteak, Aste Kulturalaren barruan, honako jarduerak aurrera eramango ditu:

11:00etan, herri kirolak, jolasak eta toka txapelketa.

12:30etan, Duende taldearen emanaldia.

13:00etan, erraldoi eta buruhandien kalejira.

14:30etan, bazkari herrikoa.

16:00etan, sevilanaka.

18:00etan, Fit Gypsy Dance

saioa.

19:00etan, errifen zozketa eta sari banaketa.

19:15etan, Semblante Rociero koruaren emanaldia.

Okendo plaza, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako emanaldia izango da; *Cerrar los ojos* proiektatuko dute. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30etan.

ASTEARTEA 24

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Borobilean Elkarteak kideek hitzaldia antolatu dute Joseba Sarrionandia idazle eta pentsalariarekin. Komunikazioaz solastuko dira bertaratzen direnak. Sarrera doakoa eta libre da.
Mercero gunea, 19:00etan.

OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA Dantza

Node, Dab nahiz Ziomara Hormaetxe konpainiek *Non batu dira gure ahotsak* emanaldia eskainiko du.
Kultur etxea, 20:00etan.



LABURPENA

'Cerrar los ojos'

Zuzendaria: Victor Erice. **Gidoia:** Victor Erice, Michel Gaztambide. **Argazkia:** Valentin Alvarez. **ekoizleak:** Tandem Films, Pampa Films, Pecado Films, Nautilus Film, Movistar Plus+, Canal Sur, RTVE. **Herrialdea:** Espainia (2023). **Iraupena:** 169min. **Generoa:** Drama; zinema, zinemaren barruan. **Aktoreak:** Manolo Soto, Jose Coronado, Ana Torrent, Soledad Villamil, Helena Miquel, Mario Pardo, Josep Maria Pou, Maria Leon, Petra Martinez, Juan Margallo, eta abar.

Desagertu den aktorearen istorioa

Julio Arenas aktore espainiar ospetsua desagertu egin da pelikula bat filmatzen ari zela, eta hilotza inoiz aurkitu ez arren, polizia ondorioztatu du itsasertzean izandako istripu batean zendu zela. Urte asko geroago, misterio hori gaurkotatuz itzuliko da, aktorearen irudia gogora

ekarri nahi duen telebista programa baten bitartez. Arenasek parte hartu zuen azken eszenen irudiak eskainiko ditu, Miguel Garay zuzendariaren lagun minak filmatutakoak.

Drama estiloko pelikula batez gozatu dute bertaratzen diren herritarrek.

Kultur etxea, 19:00etan.

IGANDEA 29

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako zinema saioaren barruan, *Richard la cigüeña y la joya perdida* filma proiektatuko duela iragarri du Lasarte-Oriako Udalak. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako zinema saioaren barruan, *Barbie* filma proiektatuko duela iragarri du Lasarte-Oriako Udalak. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30etan.

LASARTE-ORIA Jaia

Alemaniko ospakizun herriko ospetsuenetako bat herrira ekarriko du Arrieskalleta elkarteak: Oktoberfest. Saltxitxak, txerri ukondoa eta garagardoa nahi adina izango dute 21:00etan hasiko den afarira animatzen direnek, 22 euroen truke.
Arrieskalleta elkarteak, 21:00etan.

LARUNBATA 28

LASARTE-ORIA Musika

Lasartearra elkartearen 50. urteurrena dela eta, Alboka Abesbatzak eta Zero Sette akordeoi orkestrak kontzertu bateratua emango dute.



Kroseko gehigarriak urriaren 27an eta azaroaren 3an

Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!

txintxarri publizitatea@ttakun.eus | 943-37 14 48 (106) • 646 82 44 66



ZUREKIN

solaskide
Mintza
POZA
PRAKTIKATU

nonahi noiznahi

Eman izena urriaren 30a baino lehen:
Ttakun Kultur Elkartea | LASARTE-ORIA
kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89




bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO DROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA

2.500 bezerok gugan dute konfiantza

943 903 450
bertako.eus



errigora
errigora.eus

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

10 urte bete-bete

urriak 20 - azaroak 9

Saski bakoitzaren balioaren %25 euskalgintzara bideratzen da

50€



Eskatu saskia!

